

En bascuence.

- 1.^º Catecismo del P. Astete, traducido al bascuence.
- 3.^º Una gallarda y hermosísima carta, dirigida al P. Mendiburu.
- 3.^º Panegírico del gran doctor de la Iglesia San Agustín.¹

DOMINGO DE AGUIRRE.

(Se concluirá.)

MORO KONTUBA.²



Uri, gaur kontu kontari
nai nazulako para zuk,
esango dizut zeroni,
bat neri esana Bensu-k,
pasia moro Assan-i.

Gabaz aituba det ori,
Abbas-ko kanpamentuban;
aitu bada izar Uri,
gorde dezazun kontuban,
kontu kontatuba neri.

Assan biursari³ bat zan,
Afrikan emana jira;

(1) No sabemos á punto fijo dónde se dijo este panegírico. Dícese que lo fué en uno de los siguientes pueblos, en Azpeitia, Motrico, Mendaro, Placencia ó Hernani, en todos los cuales hay conventos de monjas Agustinas. El P. Francisco Fr. Ignacio de Eguía posee en Aranzazu ó Zarauz el primer manuscrito de esta oracion.

(2) On Pedro Antonio Alarkon jaunaren moldaera euskaratuba.

(3) Trovador.

kantari oberik etzan
adoratzeko Zelmira,
zeña prinzesak bat baizan.

Beti berari begira
gabaz oro bat egunaz,
kantari pararik lira,
zizpiruchoak emanaz,
dardak¹ oi ziozkan tira.

Etzan infanta erortzen
Assan-en kanta kontura;
etzekiyen adoratzen
zubenik nai aundiz ura,
kantuz ari ta kontatzen.

Assan azaltzea lotsa,
eta Zelmirak jakin ez;
kantuz nai zion biotza
esan, zekarrela miñez,
irich zezan bere poza.

Bañan zana zan gertatu;
principe Alikar-gana
baitzala enamoratu,
nola ura beragana
eta zirala ezkondu.

¿Nola Assan-i burura,
bera zeguela begira,
Alikar-ekin zerura
igoko zala Zelmira,
aztutzat lajarik ura?

Pena geiago arzezan,
prinzesak kantariyari

(1) Flecha.

kantatzeko zion esan;
 segi zezala kantari
 aren senarrak aizezan.

Itz ark beterik korajez
 penatubaren biotza,
 esan zion: nik kantik ez,
 nai det nere eriotza
 egingo detana nerez.

Itzik ukatu etzuben;
 negarrez joanik mendira
 gumiya bat an baitzuben
 eta puskaturik lira
 bere buruba il zuben.

Au da kontuba Bensu-ri
 Abbas-en aitu niona;
 ark esan bezela zuri
 dizut kontatu diana,
 biotz biotzeko Uri.

RAMON ARTOLA.

